

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.1. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA.**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN				
19. Pertsonaia femeninoen eta maskulinoen jardunak aztertzen ditut: ipuinetan, narrazioetan, kantuetan, ilustrazioetan ..., ikasgelan erabiltzen diren material didaktikoetan eta testuliburuetan.	1	2	3	4
20. Berdintasunezko erabilera ez-sexistarako jolasak eta jostailuak proposatzen ditut (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
21. Genero ikuspegiarekin aztertzen ditut ikasgai guztiak eta material guztiak, testuliburuak, narrazioak, kantuak, bideojokoak, telebistako serieak, filmak eta abar (Bigarren Hezkuntza).	1	2	3	4
22. Narrazioetako genero-rolak eta aldaketak aztertzen ditut, estereotipoak saihestuz.	1	2	3	4
23. Ikasleei genero-ikuspegiarekin aztertzen irakasten diet: jostailuen liburuxkak, jolasak, koloreen erabilera, marrazki bizidunak, filmak, lanbideak eta abar.	1	2	3	4
24. Berdintasunezko mundu baten alde genero-estereotipoak hausteko gai izan diren pertsonak ikusarazten ditut.	1	2	3	4
25. Kulturaren oro har dagoen sexismoa aztertzen dut ikasgelan, garai guztietan eta gizarte guztietan dauden genero-desberdintasunak antzemateko.	1	2	3	4
26. Sexismoa onartu ez zuten pertsonen adibideak ematen dizkiet Ikasleei, garai zaharragoetan edo kultura sexistagoetan bizi zirela alde batera utzita.	1	2	3	4
27. Berdintasunaren beharra aitortzea sustatzen dut.	1	2	3	4
28. Eguneroko irakasle-jardunean berdintasun-irizpideak aplikatzen ditut, eta ikasleen espiritu kritikoa elikatzen dut.	1	2	3	4
29. Genero-rol eta -estereotipo tradizionalak erreproduzitzen ez dituzten ipuinak, narrazioak, abestiak, irudiak, bideoak eta bestelako materialak bilatu eta eskaintzen dizkiet ikasleei.	1	2	3	4
30. Egokia iruditzen zait ikastetxean foro bat egotea, ikastetxean gerta daitezkeen jokabide edo jarrera sexistak jorratu edo hausnartu ahal izateko.	1	2	3	4
31. Beren burua genero-estereotipoei eta sexismoari dagokienez ebaluatzen laguntzen diet ikasleei, beren jarreretan, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten indizeak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK